

SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. REN
KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko abenduaren 18an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko abenduaren 12ko datarekin, SOCIEDAD DE HICROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. ren (SHESA) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

BATZORDEKIDEAK

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Halaber, Luis Muñoz Jiménez jaunak, SHESAko Zuzendari Teknikoak, bertaratze ezina adierazi du.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratu txikien zerrenda.*
2. *2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.*
3. *Beste gai batzuk.*
4. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. Kontratu txikien zerrenda.

Batzordekideei SHESAk esleitutako kontratu txikien zerrendaren berri eman zaie, Kontratazio Batzorde honen azken bileratik hona egindakoak, hain zuzen ere.

2. 2020 urteko Kontratazio Planaren proposamena onartzea, hala badagokio.

Batzordekideek 2020ko Kontratazioaren Urteko Planaren proposamena aztertu eta onartu egin dute, eta kontratazio organoari bidaliko zaio ebazpen arrazoitua eman dezan 2020ko Kontratazioaren Urteko Plana onartuz, egokitze jotzen baldin badu.


3. Beste gai batzuk.

Ez da beste gairik izan.

4. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan SOCIEDAD DE HIDROCARBUROS DE EUSKADI, S.A.ko (SHESA) Kontratazio Batzordeko presidentea eta idazkariak izenpetu dute.



Enrique Monasterio Beñaran jn.
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.
Kontratazio Batzordeko idazkaria